

EUSKAL ARTE GARAIKIDEAREN PRAKTIKAK ETA ERREALITATEAK

PRÁCTICAS Y REALIDADES DEL ARTE CONTEMPORÁNEO VASCO

2023.02.07 – 2023.03.28

Asteartero

Todos los martes

18:00-20:00

Zortzi saio irakasle espezializatuek eta adituek gidatuta eta museoko bildumako funtsen berrantolaketa berriaren erakusketaren muntaketa-prozesura bisita bat, komisario-taldearekin batera.

Aurkezpena, eta gonbidatu eta publikoarekiko arreta, Miren Vadillo Artearen Historian doktorearen eskutik.

Ocho sesiones con profesorado y especialistas y una visita al proceso de montaje de la reordenación de los fondos de la colección del museo, junto al equipo curatorial.

Presentación e interlocución con invitados y asistentes de la mano de la Doctora en Historia del Arte Miren Vadillo.

MIREN VADILLO

otsailak 7 febrero

ANE LEKUONA

otsailak 14 febrero

ENARA IRATZAGORRIA

otsailak 21 febrero

MIKEL ONANDIA

martxoak 1 marzo (asteazkena / miércoles)

ENEKO BESA

martxoak 7 marzo

FERNANDO GOLVANO

martxoak 14 marzo

MAITE LUENGO

martxoak 21 marzo

ARTIUM MUSEOA BILDUMA COLECCIÓN ARTIUM MUSEOA

martxoak 28 marzo

Prezioa: Artium Museoaren Adiskideak eta Arte Ederretako eta Artearen Historiako Fakultateetako ikasleak: doan.
Homologatutako ikasketetako ikasleak: 25 €. Gainerakoak: 60 €.
Toki mugatua. Aurretiko izen-ematea 945 20 90 20 telefonoan edo artium.eus webgunean.

Precio: Amigos y Amigos del Museo y alumnado de las Facultades de Bellas Artes e Historia del Arte: gratuito.
Alumnado de estudios homologados: 25 €. Otros: 60 €. Aforo limitado.
Preinscripciones en el 945 20 90 20 o en artium.eus

EUSKAL ARTE GARAIKIDEAREN PRAKTIKAK ETA ERREALITATEAK **2023ko otsaila - martxo**

Ikastaroa osatzen duten saioetan, euskal arte garaikideak eskaintzen dituen errealitateen ikuspegi ahalik eta osoena eta integralena eman nahi da, bai eta horren inguruan aipa daitezkeen zenbait ikuspegi ere, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren, Artium Museoaren bilduma abiapuntu hartuta.

Diskurtso hegemonikoei buruz ezarritako zenbait zalantza landuko dira, hala nola abstrakzioaren sorrera eta finkapena Euskal Herrian, baita artisten inplikazio politikoa ere berrogeita hamarreko eta hirurogeiko lehen hamarkadetan. Bestalde, artearen historiarekin zerikusirik ez duten beste diziplina batzuei ere lekua egingo zaie, baina agian arreta gutxiago jarriko zaie, hala nola arkitekturari eta oroimen-lekuak eratzeko gaitasunari, baita pedagogia artistikoaren eta dinamika sortzaile bereziak sortzeko gai izan ziren hezkuntza-proiektu batzuen eta besteen garrantziari ere. Azkenik, testuinguru kultural berrietan sortutako haustura artistikoak ezagutuko dira, baita egungo praktika artistiko kritikoetan duten garrantzia ere, emakume artistaren presentziaren beharrezko errebindikazioarekin eta haren antzezpenean eskainitako begirada berriarekin batera.

PRÁCTICAS Y REALIDADES DEL ARTE CONTEMPORÁNEO VASCO **Febrero - marzo 2023**

Las diversas sesiones que conforman el curso están enfocadas a aportar una visión lo más completa e integral posible de las diferentes realidades que ofrece el arte contemporáneo vasco y algunas de las miradas que se pueden verter sobre el mismo teniendo como eje de partida la colección del Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco, Artium Museoa.

Se trabajarán algunos cuestionamientos establecidos sobre los discursos hegemónicos como por ejemplo la gestación y asentamiento de la abstracción en el País Vasco, así como la implicación política de los artistas en los primeros años cincuenta y sesenta. Por otro lado, se dará cabida a otras disciplinas no ajenas a la Historia del Arte, pero quizás menos atendidas, como son la arquitectura y su capacidad de conformar lugares de memoria, así como también la relevancia de la pedagogía artística y los diversos proyectos educativos que fueron capaces de generar dinámicas creativas singulares. Por otro lado, se conocerán las rupturas artísticas producidas desde contextos culturales nuevos y su relevancia en las prácticas artísticas críticas más actuales, junto con la necesaria reivindicación de la presencia de la mujer artista y la nueva mirada ofrecida en sus representaciones.

MIREN VADILLO



Miren Vadillo Artearen Historian doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV-EHU). Artearen Historiako eta Arte Garaikidearen Kontserbazio eta Erakustaldiko Masterreko (UPV-EHU) irakaslea da. Euskal arte garaikidea da haren ikerketa-ildo nagusia, eta zehazkiago, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetakoa, eta arreta berezia jartzen du urte horietako arte-sorkuntzaren kudeaketa-, sustapen- eta hedapen-mekanismoetan, bai eta haien eratorbideetan ere. Hainbat ikerketa-liburu eta -artikulu argitaratu ditu, eta kongresu eta jardunaldi askotan parte hartu du, gai horri buruzko ekarpenak eginez.

Miren Vadillo es doctora en Historia del Arte por la Universidad del País Vasco (UPV-EHU). Es profesora del grado de Historia del Arte y del Máster Conservación y Exhibición de Arte Contemporáneo (UPV-EHU). Su principal línea de investigación se centra en el arte contemporáneo vasco y más concretamente en las décadas de los años sesenta y setenta, con una especial atención a los mecanismos de gestión, promoción y difusión de la creación artística de esos años, así como a las derivaciones que las mismas conllevan. Ha publicado diversos libros y artículos de investigación y ha participado en varios congresos y jornadas con aportaciones sobre el tema señalado.

OTSAILAK 7 FEBRERO
18:00

MIREN VADILLO

(Ikastaroaren koordinatzailea | Coordinadora del curso)

BEATRIZ HERRÁEZ

(Artium Museoa. Zuzendaria | Directora)

IKASTAROAREN AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Lehenengo saioan, ikastaroaren helburuak nabarmenduko dira, eta saio batzuetan eta besteetan euskal arte garaikidearekin loturik sortuko diren zalantzetako batzuk aztertuko dira. Bertan sor daitezkeen errealitate eta begirada batzuei buruzko sarrera bat eskainiko da, Artium Museoaren bilduma abiapuntu hartuta.

PRESENTACIÓN Y OBJETIVOS DEL CURSO

La primera sesión se centrará en destacar los objetivos con los que se plantea el curso y se enfocarán algunos de los cuestionamientos que a lo largo de las diferentes sesiones irán surgiendo en relación al arte vasco contemporáneo. Se ofrecerá una introducción a algunas de las realidades y miradas que se pueden verter sobre el mismo, teniendo como punto de partida la colección de Artium Museoa.

ANE LEKUONA



Ane Lekuona, Artearen Historian doktorea, EHUko irakaslea da gaur egun Artearen Historia eta Musika sailean. Bere ikerketa-ildoek Euskal Herriko artea, ikuspegi feminista, genero ikerketak eta narratiba eta hegemonia politiko zein kulturalen berrikusteekin dute zerikusia. Artikuluak idatzi ditu aldizkari zientifikoetan eta erakusketa-katalogoetan, eta bestelako ikerketa-proiektuetan ere aritu da. Halaber, erakusketa proiektuetan ere ibilia da, adibidez, *Ez dakit zer pasatzen den azken aldi honetan* erakusketan (Komisario Berriak, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa, Artium Museoa) komisario-lanak egin zituen Iñigo Gómezekin eta Itziar Gutiérrezekin batera.

Ane Lekuona, doctora en Historia del Arte, es actualmente profesora de la UPV en el Departamento de Historia del Arte y Música. Sus líneas de investigación están relacionadas con el arte, la visión feminista, la investigación de género y la revisión de las narrativas y hegemonías políticas y culturales de Euskal Herria. Ha escrito artículos en revistas científicas y catálogos de exposiciones y ha trabajado en otros proyectos de investigación. También ha trabajado en proyectos expositivos como *Ez dakit zer pasatzen den azken aldi honetan* (Komisario Berriak, Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco, Artium Museoa) junto a Iñigo Gómez e Itziar Gutiérrez.

OTSAILAK 14 FEBRERO
18:00

MARI PAZ JIMÉNEZ ETA ABSTRAKZIOA EUSKAL ARTEAN

Euskal Herriko artearen historian abstrakzioak pisu handia izan du, hain zuzen ere, historian, narratiban. Saio honetan horretaz jardungo gara, baina zehazki diskurtso historiko horretan generoak izan zuen parte-hartzea izango da gure aztergaia. Hala, egun hegemonikoa den narrazio hori deseraiki eta bihurtzen saiatzeko, Mari Paz Jiménez artistaren kasuan zentratuko gara. Egun nahiko ezezaguna den arren, oso figura garrantzitsua izan baitzen 50 eta 60ko Euskal Herriko artean eta haren irudiak eta praktikak asko eragin zuten ondorengo artistengan.

MARI PAZ JIMÉNEZ Y LA ABSTRACCIÓN EN EL ARTE VASCO

La abstracción ha tenido un gran peso en la historia del arte vasco, concretamente en la historia, en la narrativa. En esta sesión trataremos sobre ello, pero en concreto sobre la participación del género en este discurso histórico. Así, para intentar deconstruir y retorcer esa narración que hoy es hegemónica, nos centraremos en el caso de la artista Mari Paz Jiménez. Aunque hoy en día es bastante desconocida, fue una figura muy importante en el arte vasco de los años 50 y 60, y su figura y práctica influyeron mucho en los artistas posteriores.

ENARA IRATZAGORRIA



Enara Iratzagorria Gancedok Artearen Historiako ikasketak egin ditu Vitoria-Gasteizko UPV/EHUko Letren Fakultatean. Arte garaikidearekiko zuen interesak bultzatuta, Arte Garaikidea Kontserbatu eta Erakusteko masterra (CYXAC) egin zuen. Bilboko Arte Ederren Museoak eta BBK-k emandako ikerketa-bekari esker, María Francisca Dapenaren irudia eta lana landu ditu, haren lanen katalogo arrazoitua eginez eta Espainiako lurralde osoan sakabatatuta zeuden argitaratugabeko batzuk berreskuratuz. Bere ikerketa-ildoak XX. mendeko euskal arteari buruzkoak dira, batez ere Maria Dapena bezalako emakume artistei buruzkoak, Artearen Historiaren kontakizun ofizialetik baztertuak izan baitira.

Enara Iratzagorria Gancedo ha cur-sado sus estudios de Historia del Arte en la Facultad de Letras UPV/EHU de Vitoria-Gasteiz. Su interés por el arte contemporáneo le llevó a realizar el máster en Conservación y Exhibición de Arte Contemporáneo (CYXAC). Gracias a la beca de investigación concedida por el Museo de Bellas Artes de Bilbao y la BBK, ha trabajado en la figura y obra de María Francisca Dapena, realizando un catálogo razonado de sus obras, recuperando algunas inéditas que se encontraban dispersas por todo el territorio español. Sus líneas de investigación se centran en el arte vasco del siglo XX, especialmente en mujeres artistas como María Dapena, que han sido excluidas del relato oficial de la Historia del arte.

OTSAILAK 21 FEBRERO
18:00

MARIA DAPENA. LITERATURAREN ETA PLASTIKAREN ARTEKO GURUTZAKETAK.
EMAKUME ARTISTA BATEN ESPETXEKO BIZITAREN IKUSPEGI BAT

Saioak María Francisca Dapenaren (1924-1995) ekoizpen artistikoaren eta haren lan literarioaren arteko harremanak izango ditu ardatz. Zehazki, kartzelako garaiaz hitz egingo da, *¡Sr. Juez! Soy Presa de Franco...* —Alcala de Henaresko preso-ondogian atxiloturik egon zen urteetan (1962-1964) idatzia eta zentsuraren ondorioz 1987an argitaratua — ardatz harturik. Kartzelako esperientzia artistaren ondorengo sorkuntzetan islatuko da. Era berean, Dapenak Ibarrola eta Dionisio Blancorekin batera Bizkaiko Estampa Popularreko talde ezagunean egindako lana aztertuko da. Hizkera estetiko errealistarekin, sinplea eta zuzena izateaz gain, talde bizkaitarrak klase eta herri baten, euskal herri langilearen, arazoak modu bisualean adieraziko zituen arte sozial bat sortu nahi izan zuen. Kolektiboak Euskal Herriko XX. mendeko artearen historian izan duen garrantzia gorabehera, Dapenaren irudia ezezaguna da oraindik askorentzat, eta, beraz, kontakizun ofiziala birplanteatuko duen genero-irakurketa bat azpimarratuko da, artistaren askotariko ekoizpenari balioa emanez.

MARÍA DAPENA. CRUCES ENTRE LO LITERARIO Y LO PLÁSTICO.
UNA APROXIMACIÓN A LA VIDA CARCELARIA DE UNA MUJER ARTISTA

La sesión se centrará en las relaciones establecidas entre la producción artística de María Francisca Dapena (1924-1995) y su obra literaria. Concretamente, se hablará de su etapa carcelaria teniendo como guía el libro *¡Sr. Juez! Soy Presa de Franco...*, escrito en el Penal de Alcalá de Henares en los años que estuvo apresada (1962-1964) y publicado en 1978 debido a la censura. La experiencia carcelaria se verá reflejada en las posteriores creaciones de la artista. Asimismo, se abordará la labor de Dapena junto con Ibarrola y Dionisio Blanco en el conocido grupo de Estampa Popular de Vizcaya. Con un lenguaje estético realista, además de simple y directo, el grupo vizcaíno pretendió crear un arte social que manifestara de manera visual los problemas de una clase y un pueblo: el pueblo trabajador vasco. A pesar de la importancia del colectivo en la historia del arte del siglo XX del País Vasco, la figura de Dapena continúa siendo desconocida para muchos, por lo que se incidirá en una lectura de género que replantee el relato oficial con la puesta en valor de la diversa producción de la artista.

MIKEL ONANDIA



Mikel Onandia, artearen historialaria, Filosofian lizentziatua da eta Artearen Historian lizentziatua eta doktoorea. Irakaslea da Leioako Campuseko Arte Ederren Fakultatean, Arte Garaikidea Kontserbatu eta Erakusteko masterretan (UPV/EHU) eta Arte eta Kultura Garaikideen Praktika eta Teorian (Azkuna Zentroa-UPV/EHU). Erakusketa-komisarioa izan da Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa-Artium Museoa, Jorge Oteiza Museo Fundazioan eta Bilboko Rekalde Aretoan. Katalogoetarako eta arte-argitalpenetarako hainbat liburu, artikulua eta testu argitaratu ditu, eta hainbat komunikabidetako kolaboratzailea da.

Mikel Onandia es historiador del arte. Licenciado en Filosofía y licenciado y doctor en Historia del Arte, es profesor en la Facultad de Bellas Artes en el Campus de Leioa y en los másteres Conservación y Exhibición de Arte Contemporáneo (UPV/EHU) y Práctica y Teoría en Artes y Cultura Contemporánea (Azkuna Zentroa-UPV/EHU). Ha ejercido como comisario de exposiciones en instituciones como el Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco-Artium Museoa, la Fundación Museo Jorge Oteiza o la Sala Rekalde de Bilbao. Ha publicado distintos libros, artículos y textos para catálogos y publicaciones de arte y es colaborador de diversos medios de comunicación.

MARTXOAK 1 MARZO
18:00
(ASTEAZKENA / MIÉRCOLES)

ARTEA, TRANSMISIOA ETA HEZKUNTZA EUSKAL HERRIAN 40 URTEAN.
ESPERIMENTAZIOTIK ERAKUNDERA (1957-1997)

Transmisioa eta hezkuntza funtsezkoak dira artearen esparruan. Hala izan da euskal arte garaikidean, sorreratik, Jorge Oteizaren eskutik, zeinak, diktadura frankista betean, izaera esperimentaleko proiektu pedagogiko ugari definitu eta abiarazi baitzituen. Saio honetan, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan izandako ekimen eta praktika artistikoak eta hezkuntzakoak jorratuko ditugu, testuinguru berri batean murgiltzeko. Testuinguru hori erakunde autonomiko berrien sorrerak baldintzatuko du, eta 1980ko eta 1990eko hamarkadetan sistema artistikoa instituzionalizatzea ekarriko du.

40 AÑOS DE ARTE, TRANSMISIÓN Y EDUCACIÓN EN EL PAÍS VASCO.
DE LA EXPERIMENTACIÓN A LA INSTITUCIONALIZACIÓN (1957-1997)

La transmisión y la educación juegan un papel fundamental en el ámbito del arte. Así ha sido en el arte contemporáneo vasco, desde sus orígenes, de la mano de artistas como Jorge Oteiza, que, en plena dictadura franquista, definió y puso en marcha numerosos proyectos pedagógicos de carácter experimental. En la presente sesión abordaremos iniciativas y prácticas artísticas y educativas que tuvieron lugar en las décadas de 1960 y 1970 para adentrarnos en un nuevo contexto, determinado por el nacimiento de los nuevos organismos autonómicos, que implica la institucionalización del sistema artístico durante las décadas de 1980 y 1990.

ENEKO BESA



Eneko Besa arkitekturaren doktorea da, eta gaur egun Diseinu Proiektuen irakaslea IDarten, Vitoria-Gasteizko Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolan. Metodologia ikertu du batez ere. Alde batetik, proiektuen metodologia. Baina baita proiektuen irakaskuntzaren metodologia ere.

Eneko Besa es doctor en arquitectura y actualmente profesor de Proyectos de Diseño en IDarte, Escuela de Arte y Superior de Diseño de Vitoria-Gasteiz. Su investigación se ha focalizado fundamentalmente en la metodología. Por un lado, la metodología de proyectos. Pero también, en la metodología de la enseñanza de proyectos.

MARTXOAK 7 MARZO
18:00

**GASTEIZKO KOROATZEAREN ELIZA,
MIGUEL FISACEN PROIEKTUAREN METODOA**

Topaketa honetan Gasteizko Koroatze elizaren sortze-prozesua azalduko da. Zalantzarik gabe, XX. mendeko arkitekturako erlijio-gune esanguratsuenetako bat da. Horretarako, marrazkiak, krokisak eta aipu eta azalpen ugari erabiliko dira, zeinen bidez azaltzen baitu gasteiztar elizaren arkitektoak bere proiektuen metodoa.

**LA IGLESIA DE LA CORONACIÓN EN VITORIA-GASTEIZ,
EL MÉTODO DEL PROYECTO DE MIGUEL FISAC**

En este encuentro se tratará de explicar el proceso de concepción de la iglesia de la Coronación en Vitoria-Gasteiz. Sin duda, uno de los espacios religiosos más significativos de la arquitectura del siglo XX. Para ello, se recurrirá a los dibujos, a los croquis, así como a las múltiples citas y explicaciones mediante las que el arquitecto de la iglesia vitoriana explica su método de proyectos.

FERNANDO GOLVANO



Filosofian doktorea Estetikaren eta Arteen Teoriaren arloan (2017, UPV-EHU), Oteizaren teoria estetikoari buruzko tesi batekin. Arte-kritikaria, erakusketa-komisarioa, saiakeragilea eta irakaslea (UPV/EHU, 2001-2017 eta NUP, 2022-2023). Hainbat erakusketa komisariatu ditu eta euskal arte garaikideari buruzko monografia, katalogo, artikulua eta liburu ugari argitaratu ditu.

Doctor en Filosofía en el área de Estética y Teoría de las artes (2017, UPV-EHU), con una tesis sobre la teoría estética de Oteiza. Crítico de arte, comisario de exposiciones, ensayista y docente (UPV-EHU, 2001-2017 y UPNA, 2022-2023). Ha comisariado múltiples exposiciones y publicado numerosas monografías, catálogos, artículos y libros relativos al arte contemporáneo vasco.

MARTXOAK 14 MARZO
18:00

70-80 URTEAK EUSKAL TESTUINGURUAN.

TRANSIZIOAK, HAUSTURAK ETA JABETZEAREN LARRIALDIAK

Oteiza, Chillida, Ibarrola eta konstelazio modernoko beste artista batzuen herentzia nagusiaren arrastoaren ondoren, euskal testuinguruan XX. mendean erdialdean, eta neobanguardiak nazioarteko testuinguruan sartu zirenean, praktika eta teoria artistiko garaikideen magmak inplosionatu eta bere aukera guztietara hedatu ziren. Saio honetan modu sintetikoan aztertuko dira arteen eta poetiken egoera berria bereizten duten trantsizioak eta hausturak, bide eta dimentsio estetiko, etiko eta politikoei forma ematen dietenak. Figurazio kritiko eta pop-etik praktika piktorikoetako abstrakzioaren modalitate berrietara, edo eskulturako proiektu modernotik mihizadura postmodernoko trantsiziora eta dekonstrukzio konstruktibista eta kontzeptualera, laurogeiko hamarkadako ironia eta jabetzearen irudi berriak agertzen dira. Aldi berean, arte kritikoaren, kooperatiboaren eta performatiboaren beste irudi batzuek jokoan dauden subjektibotasun berriak txertatzen dituzte, artearen, etikaren eta politikaren arteko tentsio berriak.

LOS 70-80 EN EL CONTEXTO VASCO.

TRANSICIONES, RUPTURAS Y EMERGENCIAS DE LA APROPIACIÓN

Tras la estela de la herencia predominante de Oteiza, Chillida, Ibarrola y otros artistas de la constelación moderna en el contexto vasco a mediados del siglo XX, y con la irrupción de las neovanguardias en el contexto internacional, el magma de las prácticas y teoría artísticas contemporáneas implosiona y se expande a todas sus posibilidades. Esta sesión indagará de modo sintético en las transiciones y rupturas que singularizan la nueva situación de las artes y las poéticas que informan los diversos cauces y sus dimensiones estéticas, éticas y políticas. De la figuración crítica y pop a las nuevas modalidades de la abstracción en las prácticas pictóricas, o del proyecto moderno en la escultura a la transición hacia el ensamblaje posmoderno y la deconstrucción constructivista y conceptual, emergen nuevas figuras de la ironía y la apropiación en los ochenta. A la vez, otras figuras del arte crítico, cooperativo y performativo incorporan nuevas subjetividades en juego, nuevas tensiones entre el arte, la ética y la política.

MAITE LUENGO



Maite Luengo Artearen Historia eta Musika Saileko irakaslea da UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean. Bere doktorego tesian euskal tesuinguruko 90eko artea ikertu du. Zehazki, gorputzari lotuta emakume artistek sortutakoak. Era berean, artikuluzientifikoak argitaratu dituzaldizkari akademikoetan, artearen historiografiari ikuspuntu feministatik helduz. Gaur egun, arte garaikideari buruzko dibulgazioa ere egiten du, Euskadi Irratiko *Baipasa* saioan.

Maite Luengo es profesora del Departamento de Historia del Arte y Música en la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU. En su tesis doctoral ha investigado el arte de los 90 del contexto vasco. En concreto, el creado por mujeres artistas vinculado al cuerpo. Asimismo, ha publicado artículos científicos en revistas académicas, abordando la historiografía del arte desde un punto de vista feminista. En la actualidad también realiza divulgación sobre arte contemporáneo, en el programa *Baipasa* de Euskadi Irratia.

MARTXOAK 21 MARZO
18:00

GORPUTZ FEMENINOEN KANONA ETA DISKURTSO SORTZAILE BERRIAK

90eko hamarkadan, gorputzaren inguruko interesa areagotu zen nazioarteko sorkuntzan. Euskal kasuan ere, toki nabarmena izan zuen. Hainbat ikuspuntutik landu zen gorputza eta saio honetan bide horietako bat hartuko dugu. Hain zuzen ere, emakume artista batzuek hedabideetako eta arteko gorputz femeninoen irudikapenak nola berrinterpretatu zituzten ikusiko dugu. Zer nolako jarrera kritikoa adierazi zuten artistek? Zein estrategia erabili zuten horretarako? Zein motatako iruditeria berritua garatu zuten? Besteak beste, hauek izango dira saioa gidatuko duten galderak.

EL CANON DE LOS CUERPOS FEMENINOS Y LOS NUEVOS DISCURSOS CREATIVOS

En la década de los 90 se intensificó el interés por el cuerpo en la creación internacional. En el caso vasco también ocupó un lugar destacado. Se trabajó el cuerpo desde diferentes puntos de vista, y en esta sesión tomaremos uno de esos caminos. En concreto, veremos cómo algunas mujeres artistas reinterpretaron representaciones de cuerpos femeninos en los medios y en el arte. ¿Qué tipo de actitud crítica manifestaron los artistas? ¿Qué estrategia utilizaron para ello? ¿Qué tipo de imaginario renovado desarrollaron? Estas serán, entre otras, las preguntas que constituirán el hilo conductor del programa.

ARTIUM MUSEOA BILDUMAREN FUNTSEN BERRANTOLAKETA BERRIAREN BISITA

VISITA A LA NUEVA REORDENACIÓN DE LOS FONDOS DE LA COLECCIÓN ARTIUM MUSEOA



Sala 01 aretoa.

Zeru bat, hamaika bide. *Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002* aldian
Zeru bat, hamaika bide. *Prácticas artísticas en el País Vasco entre 1977 y 2002*

Datorren martxoaren 31n inauguratuko da Artium Museoa-ren Bildumaren berrantolaketa berria. *Euskal Arte garaikidearen praktikak eta errealtateak* ikastaroaren barruan erakusketaren muntaiaren bisita bat egiteko aukera dago, bertako komisariatza-taldearen eskutik.

Ondokoek parte hartu dute komisariatza-lanetan: Sergio Rubira historialari eta komisarioak, Thomas Boutoux editore eta irakasleak, Enrique Martínez eta Elena Roseras museoko Bilduma, Dokumentazio, Artxibo eta Liburutegiko ardura-dunek eta Beatriz Herráez museoko zuzendariak.

El próximo 31 de marzo se inaugura una nueva reordenación de los fondos de la Colección Artium Museoa. El curso *Prácticas y realidades del arte contemporáneo vasco* ofrece una visita al montaje de la exposición de mano de su equipo curatorial.

La muestra está comisariada por el historiador y comisario Sergio Rubira, el editor y profesor Thomas Boutoux, que han trabajado junto a los responsables de Colección y el Centro de Documentación, Archivos y Biblioteca del museo, Enrique Martínez y Elena Roseras, y la directora del museo, Beatriz Herráez.

MARTXOAK 28 MARZO

18:00

1950eko hamarkadaren erdialdean hasi eta gaur egunera arte iristen den kronologia batekin, erakusketak Jorge Oteiza, Nestor Basterretxea eta Mari Paz Jiménez Latinoamerikatik itzuli izana hartzen du modernotasunaren kontakizun posibleetako baten abiapuntutzat. Berrantolaketa horretan funtsezkoa da Arantzazuko basilikaren proiektuaren inguruan bildutako komunitate artistikoa, langileen egoerarekin konprometituta dagoen eta diktadura frankistaren aurka dagoen arte baten garapena edo arte berri hori Euskadin eta Euskaditik kanpo kokatzeko modua. Erakusketeta ospetsuak eta nazioartekoak ere aipagai izango dira erakusketan. Gainera, aldi baterako erakusketen esparruan egindako ikerketak bildu eta garatuko dira eta, aldi berean, jarraitutasunak proposatuko ditu egungo artelanetan, obra horiek hain urrun ez dagoen iraganaren testuinguruan kokatzen laguntzeko.

Con una cronología que se inicia a mediados de la década de los cincuenta y llega hasta nuestros días, la muestra toma como punto de partida de un posible relato de la modernidad el regreso desde Latinoamérica de Jorge Oteiza, Néstor Basterretxea y Mari Paz Jiménez. Es central en esta reordenación la comunidad artística reunida en torno al proyecto de la basílica de Aránzazu, el desarrollo de un arte comprometido con la situación de los trabajadores y opuesto abiertamente a la dictadura franquista o el modo en el que ese arte nuevo se encuadró dentro y fuera de Euskadi. El recorrido por exposiciones de referencia y citas internacionales se aborda también en la muestra. La exposición opera, además, como un espacio en el que se recogen y desarrollan investigaciones producidas en el marco de las exposiciones temporales, al tiempo que propone continuidades en obras actuales que ayudan a resignificar y contextualizar esas obras de un pasado no tan lejano.

ARTIUM MUSEOA

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco
Museum of Contemporary Art of the Basque Country